



EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 2 zk.

Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



Maria Elola. ULMA Construction

“Euskaraldian jendeak bere burua behartzen du euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hitz egitera. Gehiagorekin horretan ni nago. Euskaraldian, jendeak, nigana etortzen denean, euskaraz hitz egiten dit. Nahiz eta ni bertan egon, elkarriketek euskaraz izaten jarraitzen dute eta laneko bileretan ere euskara da hizkuntza nagusia. Jarrera hauek asko gustatzen zaizkit, gainera batzuetan ni ere animatzen naiz eta euskaraz ere erantzuten diet. Nire ustez euskara normalizatzeko momentua da, dakitenek euskaraz hitz egiteko eta hitz egiten ez dakigunok euskaraz entzuteko eta nahi badugu mintzatzeko, besteak beste. Zergatik ez ditugu luzatzen belarriprest edo ahobizi rolak urte osora?”



Mikel Mantxola. ULMA Forja

“Euskalduna naizelako”

Eguneko datua

ULMA Taldean **34** ARIGUNE sortu ditugu,
EUSKARAZ EROSO ARITZEKO GUNEA.




Pandoraren kutxa

Giro sozialaren eragina

Euskaraldia hizkuntza portaerak aldatzeko helburuz egindako ariketa da. Portaera aldaketen teorien arabera, gehienok egokitu egin ohi gara inguruko giro sozialara, ikusi ondoko bideoa!

Hizkuntzari dagokionez ere berdin jokatzten dugu. Euskaraldiak balio dezala, inguru sozial hori aldatzen hasteko!



emun

4. eguna